

SAN GABRIEL ESKOLAKO

PRINTZIPIO, BALIO ETA NORTASUNA

P

Plurala: erreferente etiko.

U

Umearen garapen integralaren babesle.

B

Berdintasunaren garante.

L

Lankidetzaz - partaidetzaren sustatzaile.

I

inklusiboa: ikasle ororen integratzaile.

K

Konpromezu globalaren eredu

O

Ongizatea garapen emozionalean oinarrituz.

A

Aktiboa: euskalduntzean, metodologian

P

U

B

L

I

K

O

A



DEKALOGOAREN DEFENTSA

Eskola dekalogo edo PRINTZIPIO, BALIO ETA NORTASUNA definitzen duten gako zein lehentasunak adostu berri genituen komunitate osoak duela hiru urte HEZKUNTZA EGITASMOAN.

Dekalogoaren garatzeko printzipio, balio eta nortasunaren garapenean bozkatu eta adostu genituen eremuak hartu ditugu:

1. Euskalduna. Eleanitza, hizkuntzen tratamendu integratua.
2. Pertsonaren garapen integralaren sustatzaile: hezkuntza emozionala.
3. Plurala inklusiboa, giza duintasunaren balioa, funtzeko erreferente etiko gisa.
4. Partehartzailea, familien, ikasleen eta ikastetxeko antolaketako eta funtzionamenduko profesionalen arteko lankidetzaren sustatzen duena.
5. Ikaslea bera hezkuntzaren protagonista izatea, berdinen arteko lankidetzaren oinarrituta.
6. Berdintasuna, errespetua eta justizia sustatzen duena.

Era berean, lan filosofia, sistema publikoak ikasle ororen eskubideen garante denaren sinesmenaren oinarrituta egongo da. Gainera, eskola demokratikoa sustatuz, erabakiak konsentsuan hartuko. Komunitate osoaren parte-hartzea lan metodoa modura ezarri.

Azpimagarria da ere hezkuntza publiko eta euskaldunarekiko gure konpromezua urterik urte sendotzen eta lehenesten dugula proiektu modura.